

Ezpalak

JON TORNER

Arte garaikidearen topikoez barrez



AMERICA proiektuaren baitan, Atiza eta Crash Comic elkarteek antolatuta, *Hartos de arte* izeneko erakusketa paratu dute Gasteizko Ignacio Aldecoa kultur etxean. Arte garaikideari kritika zorrotza egiten dioten hogeita bi komikigileren marrazkiak bildu dituzte bertan, tartean Alvaroortega, Azagra, Mauro Entrialgo, Simonides eta Santi Oruerenak. Erakusketa ekainaren 18a arte izango da ikusgai.

Trinitate Plazara itzuliko da Donostiako Jazzaldia

HANK JONES, Abdullah Ibrahim, Randy Weston eta Roy Haynes izango dira, besteak beste, Donostiako 44. Jazzaldian. Aurten, San Telmo Museoko obrak amaituta –alde horretakoak behintzat–, Trinitate Plazak ere jasoko ditu emanaldiak. Zinemaldian bezala, krisiaren ondorioak Jazzaldian ere nabaritutako dira: egun bat gutxiago iraungo du –uztailaren 22tik 26ra–, eta Jazz Band Ball ekimena bertan behera geratu da. Aurten 1,6 milioi euroko aurrekontua izango du jaialdiak, iaz baino ia %25 gutxiago. Interneten: www.heinekenjazzaldia.com.

Kantu eta Hitza zikloaren baitan, Rafa Ruedak kontzertua eskainiko du hilaren 28an Iruñeko Erraldoien Txokoa. Ekainaren 4an Pier Paul Berzaitz ariko da leku berean, 11n Miel Otxin, 18an Zura eta 25ean Petti. Emanaldi guztiak 20:30ean hasiko dira.

Kukai dantza konpainiak *Soka* kale ikuskizuna estreinatu zuen iragan astean, Leioako Umore Azokan. Jon Maya dantzari eta koreografoak zuzendu du Kukairen aurreneko kale ikuskizuna.

Joxan Ormazabalek sei urtetik gorako haurrei zuzendurik dagoen *Hitz eta zaunka* liburua (Elkar) plazaratu du. Jose Belmontek egin ditu liburuko marrazkiak. Ezusteko gertaera baten ondorioz, zaunka egiten hasiko den ehiztariaren eta hizketan hasiko den zakurraren istorioa kontatzen du liburuak.

Joaquim Mir margolari kataluniarraren 80 obra bildu ditu Bilboko Arte Eder Museoak, *Joaquim Mir. Erakusketa Antologikoa 1873-1940* izenburupean. Uztailaren 26ra arte izango dira ikusgai.



Set talde bermeotarrak bere lehenengo lana kaleratu du: *Hoy es siempre todavía* (Baga Biga).

● **Edu Muruamendiaraz Aukeran dantza-konpainiako zuzendariak HABE aldizkarian:** «Proiektuak izan baditugu, baina orduak falta zaizkigu entseguak egiteko. Ez gara profesionalak eta igarri egiten da. Orduz kanpo egiten ditugu entsegu horiek, gune ez oso aproposan, Zurriola ikastolak uzten digun areto txiki batean, eta eskerrak horri, baina leku hobe bat behar dugu. Profesionaltasunerako jauzia egitea ezinbestekoa da (...) Telebistan badira saio batzuk dantzarien gainekoak, estilo ezberdinak lantzen dituztenak eta dantza ezagutzera eman dutenak. Show edo reality horiek gustuko ez baditut ere, esan dezaket dantza-arloari ez diotela kalterik egin, dantza ezagutzera emateko lagungarriak izan direla».

● **Mikel Onaindiak Garan:** «Arteak ezagutza edota begieste estetikoan iturri beharko luke. Horregatik, arte garaikidean pedagogiaren auzia funtsezkoa da (...) Baina, izan gaitzen serioak. Ez da soilik pedago-

gia kontua. Arazo estruktural bat ere badago: arte garaikidearen produkzioaren gehiengoa kaxkarra da benetan, baliorik gabekoa. Askotan badirudi artea, abangardia historikoetatik gaur arte, errepikatzen ari dela etengabe. Ez da oso popularra halakorik publikoki esatea, baina museo eta galerietan aurkezten zaizkigunak ez dira ezinbestean lan interesgarri eta kalitatezkoak izan behar, hor egote hutsagatik eta duten kontsiderazio artistikoagatik».

● **Jose Luis Irigoien argazkilaria Berrian:** «Badirudi argazki bat ateratzeko ez dela teknika edo ezagutza izan behar, edonork atera dezakeela argazki bat. Erraza ematen duenez, ez da argazkilaritza behar bezainbeste baloratzen. Halere, argazki onak lehen baino gehiago estimatzen direla iruditzen zait. (...) Copyleft bidez, esaterako, zure lanak erabiliko dituzte, baina, era berean, zure izena jakinaraziko dute».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Killing me softly with this... gun?

Sweetpads. France Cadet, 2004.
Webgunea: www.cyber-doll.com.


Lagun batek “laztan bat jo” lokuzioa asmatu zuen duela urte batzuk, ez dizuet esango zein testuingurutan, bai ordea ez zela biktima humanorik egon. Kontua da berarekin akordatu nintzela aurrekoan, blegean (www.argia.com/boligrafo-gorria) idazteko zerbaiten bila France Cadet-en instalazio bat ikustean. *Quake 3 Arena* bideojokoa da instalazioaren ardatza: jakingo duzunez, jokoaren helburua tiroka parekoaren tripak lehertzea da. Baina, Negu Gorriaken kantak zioen bezala, “hiltzeko era ugari dago”... eta instalazioak modurik, nola esan, goxoena erakusten du.

Cadet-ek agintailuak aldatu ditu, *sweetpad* izeneko esfera erdiak jarri ohiko tresnen orde; helburua: betiko moduan botoiak urduri, azkar eta gogor zapaltzen ibili beharrean, jokalaria agintailua xuabe, kari-

ño handiz ukitu behar izatea, etsaia albondiga odoldu bat bihurtu nahi badu. Zenbat eta urduriago mugitu eskuak agintailuan, orduan eta dorpeago mugituko da pantailan zure *killer* hori.

Betiko jokoetara oso ohituta nago ni, eta ez dakit... ez dut imajinatu nahi instalazio honetan parte hartzeak sortu behar duen ezinegona. Iruditzen zait bideojoko biolentoei beraien funtzio soziala betetzen dutela: inork benetan egingo ez lituzkeen indarkeria ekintzak modu birtualean eta inpunitate osoz egiteko aukera eskaintzen dute, eta tresna erabilgarria dira bortxaren libidoa asetzeko. Horregatik iruditzen zait, deserosoa behar duela: ekintza libido-isurtzaile baten erdian gailu erreprimitzaila bat sartzen du instalazioak, jokalaria behartuz formak gordetzera.

Emaitza ironikoa da, barre egiten du Lehenengo Munduan indarkeriaz egiten diren diskurtsoez: laztan bat bezalako ekintza sotilaren atzean gorde daitekeen izugarrikeria erakusten du. Egunero ikusten duzu agintariekin: hitzak ondo zainduz hitz egiten dute, eskuak mugitzeko era oso estudiatua daukate, keinu bakoitza irudi-aholkularien galbahetik pasea dago. Eta instalazio honetan jokalarien baretasun beraz mugitzen dituzte indarkeria ofizialaren hariak. Botoi bat sakatuta bidaltzen da misil bat Gazara, Irakera, Afganistanera, harategi industrial bat lotsagorritzeko moduko triskantzak egitera. Hori gertatzen den une berean, hedabideetan bideojokoetako indarkeriarengatik kirioak dantzan jartzen dira moraltasunaren zaindaria. Beharbada instalazio hau maiteago izango dute, hiltzeko asmoz egindako balakuek itxura hobea ematen baitute jende politikoki politaren begietan.



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan

Harpidetza doan e-postaz

Dagoeneko 2.500 harpidedun

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

argia.com